

# Otxandio aldeko hiketaren berezitasunez

XABIER BURGUETE AJURIA\*

**L**an honetan Otxandioko euskararen barietatean, hiketaren barrena eman den “n” markaren falta aztertuko dugu, hiru zati nagusi desberdinduz:

1. *Indikatibo lehenaldia, subjuntibo eta aginteraren adizkien “n” markaren falta.*
2. *-n/na emakume seksu markaren falta*
3. *Hitanozko menpeko esaldietako -na emakume seksu markaren galera eta zebergalderetako -n atzizkiaren falta*

Lehenengo eta bigarren zatian, Otxandioko barietate berekoak<sup>1</sup> diren Ubide<sup>2</sup> eta Oletako zenbait hika adirki desberdin, Otxandioko berezko azpi-barietateko adizkiekin alderatuko ditugu, Legutio<sup>3</sup>, Otxandioko barietate barruan badago ere, utziko dugularik.

\* F.P. 2.

1. Ebro-ranzko isurialdean euskaldun gelditzen den zonaldebakarra da, Gorbea eta Anbo to bitarteko arroan kokatua, Nafarroako Sakana, Larraun garaia eta Basaburuarekin batera.

Legutiotik hegoalderantz, gazteizko lautadada zabaltzen diren herrietan, euskara, Legutio, Elosu eta Urrrunagan, galtzeaz edo galduta dago, orain dela urte batzuk atzerago, Zigoitia, Arrázua-Ubarrundian (Luko, Urbina, Ullibarri-Ganboa, Landa) eta Barrundian (Marieta, Elgea, etab.) gertatu zen bezala.

2. Ubideko euskara, zenbait gauzatan, zerbait desberdintzen da Otxandioko eta Oletako euskaratik, Arratiako antz gehiago hartuz, lehen ikusi ditugun adizki “n” markadunetan, eta batez ere bustidura ezean: ito, kito, mutile, nendunan, etab.

3. Legutio/billerleko subbarietatea Bonaparte printzeak eta P. Yrizarrek Otxandioko barietate barruan kokatzen badute ere, badago nahiko desberdintasun hemendik at kokatzen. Lehenaldietako adizkietan (seman, geman, sintzen, etab.) eta hiketaren “n”dun adizkietan (naidxoan, itzen, etab) baita emakume marken bereizketaz (naidxonan, dxonan, etab.). Baita/j/ belarearen ahoskeran (jan, jagi, juen, etab.), beste hiru herrietan (dxan, dxagi, dxuen, etab.) nabarmenki desberdintzen da Legutio beste hiru herrietatik, Leintz bailarako barietatera gehiago hurbilduz.

## 0. SARRERA

Datuak jasotzeko metodo bi erabili ditut; alde batetik bildurik dagoen materiala (ikus bibliografia) aprobetxatu, eta bestetik bildurik inon aurkitu ezin ditudan datuak (Subjuntibo era eta hitanozko menpeko esaldiak), neuk espresuki bilduak, lekuko hauexek izan ditudalarik: bereziki, lehen oharra bezala sartu.

OLETA; Pedro Etxabe, 65 urte

UBIDE; Luxiano Zubimendi, 65 urte

OTXANDIO; Tomás Lejarzegi, 80 urte

Isidora Lejarzegi, 74 urte

Bizente Bengoa, 86 urte

Denei nire eskerrik beroenak, eduki ditudan zalantzak argitzeko, zehaztasun guztiak, begikotasunez eta adeitasunez eman dizkidatelako.

## 1. INDIKATIBO LEHENALDIA, SUBJUNTIBO ETA AGINTERAREN ADIZKIEN “N” MARKAREN GALERA

Sarreran aipatu dugunez, Otxandio, Ubide eta Oletan, hiketa lehenaldia “n” gabe egiten da, Zuberoeraz<sup>4</sup> eta duela urte gutxi galdu den Erronkarieraz bezala, gainerantzeko adizki indeterminatu guztiak “n” dunak direlarik hiru euskalkiotan, beste euskalkien joeraren bestaldera.

Hala ere, Ubide eta Oletan “n” marka falta hori, paradigma guztietan ez da Otxandion bezala hain zehatz eta sistematikoki gertatu.

Jarraian, ondorengo adibideetan, bakarrik aldeak dituzten adizkiek aztertuko ditugu:

### 1.1. indikatibo lehenaldia

#### 1.1.1. *Nor-Nork*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
indudan	indduá	inddua	(hindudan)
induan	indduá	inddua	(hinduen)
indu(gu)n	inddu(gu)á	inddu(gu)a	(hindugun)
induen	indduén	indduria	(hinduten)
nendun/nendunan	nindduá	ninddua	(ninduan/ninddunan)
ban	bá	ba	(huen)

#### ADITZ ETIKOA

nindua/nenduan	nindduan	naidxua	(nindian/nindinan)
dxaudia	dxoén	dxuria	(zi(a/na)ten)

4. Zuberoeraz ere, ditz etiko ere “n” gabekoa da kasu guztietan. Aditz normala barzutan. NOR-NORK eran; nundia/nunduña, guntia/guntuña.

NOR-NORI eran; ziya/zeiña. NOR-NORI-NORK eran; “hiri” kasu guztietan, nea/neña, zea/zeña, genea/geneña, zieia/zieña. Beste kasu guztietan, aditz normala “n” duna da.

dxadiasa	dxoezán	dxuriasa	(zizki(a/na)ten)
dxeukia	dxeukén	dxaukia	(zeuka(a/na)ten)
dxeukiasa	dxeukezá	dxaukiasa	(zeuzka(a/na)ten)
nindua	nindduén	nadxuria	(nindi(a/na)ten)

Oletan “haiek” ergatIgo denean “n” iragan marka hartzen dute, hika alokutiboan eta baita ez alokutiboan ere, “haiek-haiek” kasuetan berriz galtze-ko, “dxoezán” salbu, “hark-ni” kasua ere “n” duna da.

Ubiden “hika aditz arrunta, “n”duna da, aditz etikoa berriz “n” iragan marka gabekoa.

### 1.1.2. *Nor-Nori-Nork*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
ostan	ustá	osta	(hidan)
otzen	utzá	otza	(hion)
oskun	uskuá	oskua	(higun)
ontzien	utzá	otza	(hien)
nostan/nonan	nustá	nosta/nona	(nian/ninan)
ostan/onan	ustá	osta/ona	(zian/zinan)
gostan/gonan	gustá	gosta/gona	(genian/geninan)
osten/onen	ustién	ostia/onia	(ziaten/zinatan)

### ADITZ ETIKOA

dxostia	dxustén	dxostia	(zida(a/na)ten)
dxotza	txén	txa	(zio(a/na)n)
dxoskua	duxskuén	dxoskuria	(zigu(a/na)ten)
dxortzia	txén	txia	(zio(a/na)ten)
dxortzasa	txezá	txiasa	(zizkio(a/na)n)

## 1.2. Subjuntiboa

### 1.2.1. *Nor*

aiten	aitta	aitta	(hadin)
UBIDE	OLETA	OTXANDIO	

### 1.2.2. *Nor Nori*

dakidan	dakidá	dakida	(dakian/dakinan)
dakidasan	dakidasá	dakidasa	(dakizki(a/na)n)

### 1.2.3. *Nor-Nork*

aidan	aida	aida	(hazadan)
aidan	aida	aida	(hazan)

aigun	aigua	aigua	(hazagun)
		aiasen	(hazaten)
naidan	naida	nai(d)a	(naza(a/na)n)
daidan	daida	dai(d)a	(deza(a/na)n)
gaisan	gaiasa	gaiasa	(gaitza(a/na)n)
daidasan	daidasa	dai(d)asa	(ditza(a/na)n)

#### 1.2.4. *Nor - Nori -Nork*

daistan	daista	daista/daiña	(dieza(a/na)dan)
daistan	daista	daista/daiña	(dieza(a/na)n)
daistaun	daistaun	daistaun/daiñaun	(dieza(a/na)gun)
daisten	daisten	daistia/daiñaia	(dieza(a/na)ten)
daistan	daista	daista	(diezada(a/na)n)
daitzan	daitza	daitza	(diezaio(a/na)n)
daiskun	daiskua	daiskua	(dieza(a/na)gun)
daitzien	daitza	daitza	(diezaie(a/na)n)

Hika aditz arruntean, Ubiden subjuntiboa, lehenaldia bezala “n”dunada Oletan eta Otxandion,”guk-hiri” NOR-NORI-NORK eran izan ezik, beste kasu guztiak “n” gabekoak dira, Oletan “haiek-hiri” kausan ere, berdin.

Bestalde, esan behar da, subjuntiboan aditz etikorik ez dagoela hiru he-  
rrietan, beraz “n” gabeziarik ez dagoela.

Zuberoeraz<sup>5</sup> subjuntiboa ere, zenbait kasutan “n” gabekoa da.

### 1.3. Agintetera Alokutiboa

#### 1.3.1. *Nor*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
gaitesan	gaittezá	gaittesa	(gaitezen)

#### 1.3.2. *Nor-Nork*

daigun	dxeguá	dxeigua	(dezagun)
daigusen	dxeguzá	dxieguasa	(ditzagun)

#### 1.3.3. *Nor-Nori-Nork*

daitzaun	dxegutxá	dx eigutxa	(diezaio/iegun)
daitzausen	dxegutxazá	dx eigutxasa	(diezazkio/egun)

5. NOR-NORI eran; dakia/dakiña. NOR-NORK eran; dezaya/dezaña. NOR-NORI-NORK eran; dizayada/dizañada, dizaya/dizaña, dizada/dizadaña, dizoya/dizoña, dizaguya/dizaguña, baina dizayagun/dizañagun eta dizayen/dizanen, hauek “n” markaz.

#### 1.4. Subjuntibo eta aginterazko zanbait esaldi

- Kendu gaittesa ametik dxo eskaixen  
(*ken gaitezen hemendik jo ezgaitzan*)
- Emon dxegutxa orri eruen gaiasa  
(*Eman diezaiozun horri eraman gaitza(a/na)n*)
- Emon dostat, gedxau enaia dxo  
(*Eman diat, gebiago ez naza(a/na)n jo*)
- Aginddu dxoskuk gaittesan  
(*Agindu ziguk joan gaitezen*)
- Eskaittesan estutu te ein dxegua  
(*Ez gaitezen kezka eta egin dezagun*)
- Ointxe preparamo ostat kafe berue, aittai erun daitza  
(*Oraintxe gertatuko diat kafe beroa, aitari eraman diezaioan*)
- Aittai erun daitzan kafe berue ta egon daitten oien  
(*Aitari eraman diezaiodan kafe beroa eta egon daitela ogean*)

#### 2. -N/NA EMAKUME SEKSU MARKAREN GALERA

Orokorrean, Otxandion eta Ubiden hika aditz arruntako para digmak, NOR NORI eta NOR-NORI-NORK eran -K/A gizonezko markak eta -N/NA emakume markak bereizten dira, Oletan- K/A gizonezko markekin egiten da beti emakumeen hitanoa, nahiz kasu batzutan -N emakume marka adizki amaieran agertu ahal izan, NOR-NORI-NORK kasuetan.

NOR-NORK era orainaldian hiru herriotan -K/N markak bereizten bada Otxandioko menpekoetan -N desagertzen da, (ikus hurrengo atala), eta lehenaldian, bakarrik Ubiden gordetzen dira -A/NA seksu markak, Otxandion eta Oletan -A gizonezko markekin egiten da.

Aditz etikoan, orohar, lehenaldian hiru herriotan; -NA emakume marka inoiz ez da agertzen beti -A gizon marka lekua hartzen duelarik. Orainaldian, batez ere Ubiden eta zenbait kasutan oletan, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK kasuetan -N emakume marka adizki amaieran ager liteke men-debaldeko Bizkaieraz egiten den bezala. Otxandion hau ez da oso ohizkoa.

Erronkarieraz ere aipatu dugun guztia gertatzen zen<sup>6</sup> hau da, iraganean ez dago "-na" emakume selisu bereizgarriarik inondik inora.

6. Erronkarieraz aditz normala eta alokutibo lehenaldia, (4) oharrean ikusi dugun bezala egiten zen, baina hemen esan behar da lehenaldian ez dagoela -NA emakume seksu markarik Zuberoeraz bezala, hiketa guztia -(Y)A gizonezko markaz egiten da, bai aditz alokutiboa eta aditz normalean ere:

nintzea, nindia	diar	nia
zea, zia	diek/n	zia
gintzea, gintia	dieguk/n	guniá
zrea,	deik/n	zeyá

Orainaldian, men-debaldeko Bizkaiera hiketaren antzera, Erronkarieraz NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK adizkietan, -K N markak azkenean doaz;

nik-hari (daudak/n), guk-hari (daguk/n, nik-hiri (dakak/n), guk-hiri (daiguk/n).

## 2.1. Hika aditz normala

### 2.1.1. *Nor - Nori*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
dxanas	dxatas	dxanas	(zaizkin)
dxana	dxata	dxana	(zitzainan)
dxanasa	dxatasa	dxanasa	(zitzaizkinan)

### 2.1.2. *Nor - Nork*

nendunan	ninddua	ninddua	(nindunan)
gendonasa	gindduasa	gindduasa	(gintunan)
unuasa	basa	basa	(hituen)

Otxandion eta Oletan ez da bereizten -NA emakume marka, Ubiden berri, “hi” nominatiboen kasuan ezezik, baita ergatiboa denean ere bereizten da, beste toki batzutan gertatzen den bezala<sup>7</sup>.

### 2.1.3. *Nor - Nori - Nork*

Lehen aipatu dugun bezala, Oletan -NA marka bereizten ez denez, hemen paradigma guztiak ipintzera ez goaz (nahi duenak ikus beza P. Pujanaren liburua). Hemen bakarrik jarriko dugu gertatzen ari den fenomeno bat, -NA emakume seksu marka erdikoia, adizki azkenera pasatzen da -N forma hartuz

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
donat	dustat/dustan	donat/dostan	(dinat)

Oletan, “dustat” adizkiak gain “dustan” adizki gaizki eratorria ere erabiltzen da “nik-niri” adizkiarekin nahasmena sortuz. Otxandion ere esan behar da, emakumeen hitanoa ondo ez dakitenak -N emakume marka azkenera pasatzeko joera dutela.

## 2.2. Aditz etikoa

### 2.2.1. *Nor - Nork*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
dxoat/dxoan	dxuat/duan	dxuet	(dist/dinat)
dxok/dxon	dxok/dxon	dxok/dxon	(dik/din)

7. Zeanuri, Markina, Oñate, Gernika eta gipuzkera barietate batzutan ere; aunat, aune, aunagu, aunai/aune. Zamundio eta Ereñon; aunat/autena auna, auguna, baita Larrabetzun eta Igorren, Leintz eta Angiozarren, orainaldian hain argi ez bada ere, lehenaldi guztietan; ninddunan, inddunan, inddugunana, ittunan.

dxuk/dxun	dxuau	dxuau	(diagu/dinagu)
dxuek/dxuen	dxue	dxue	(ditek/diten)

Otxandion eta Oletan, ekialdeko Bizkaieraren moldea daukatenez lehenengo pertsonetan, erdian -NA marka behar lukete; dxunat, dxunau.

Ubiden, mendebaldeko Bizkaieraren moldeari jarraituz -K/N marka biak dauzka (ikus Eneko Barrutiaren lana).

### 2.2.2. *Nor - Nori - Nork*

UBIDE	OLETA	OTXANDIO	
dxotzak/n	txat	txat	(zioat/zionat)
dxotzek/n	txak/n	txak/n	(ziok/zion)
dxotzau/n	txau	txau	(zioagu/zionagu)
dxorziek/n	txek/n	txe	(ziotek/zioten)

Orainaldian bakarrik Ubiden bereizten dira -N markak. Otxandion eta Oletan lehenengo pertsonetan -NA emakume marka falta da; txanat, txanau, inoiz egon baldin bada.

## 3. HITANOZKO MENPEKO ESALDIETAKO -NA EMAKUME SEKSU MARKAREN GALERA ETA ZEHARGALDERETAKO -N ATZIZKIAREN GALERA OTXANDIOKO HIKETAN

Euskararen joera orokorraren arabera. Otxandion ere, aditz nagusiko menpeko esaldia da menperagailua (-la, -n, -lako, etab) hartzen dituen aditz etiko edo alokutiboak ez du inoiz menperagailurik onartzen, nahiz batzutan honela ez gertatu<sup>8</sup>.

Hemen, zehargaldera, erlatibo eta konpletiboen menperagailuek, lau adizki era desberdinetan daukaten eragina aztertuko dugu.

### 3.1. -K/N Marka amaieradun adizkiak

#### 3.1.1. *-K/N Marka oposaketa amaiera abuldunak*

NOR-NORK era eta baldintza ondorio guztiak sartzen dira multzo honetan eta menpekotzean, -K/N seksu marka biak galtzen dituzte:

$$-k + a + M > a + M \quad (l \rightarrow \emptyset)$$

$$-n + a + M > a + M \quad (n \rightarrow \emptyset)$$

Menperagailuak (M) atzetik erastea, hau da -la, -Ø, -n, -lako...

Beraz ezabaketa bat ematen da;

8. Zenbaitzuk, batez ere auzoko arratiarren eraginez, norma hau aldrebestu egin dute: etorri dokela, ekarri dxokela etab. entzun daitezke, etorri dala, ekarri dauala etab. esan beharrean. Hala ere, fenomeno hau ez dago oso zabalduta.

dokala > doØala  
donala > doØala

beste toki batzutan alderantziz gertatzen da, gehiketa bat<sup>9</sup>.

NOR-NORK ZEHARG. ERLAT. KONPLET.

nok/n	noa	noan	noala	(nauk/n)
dok/n	doa	doan	doala	(duk/n)
gosak/n	goasa	goasen	goasela	(gituk/n)
dosak/n	doasa	dasen	doasela	(dituk/n)
dakik/n	dakia	dakian	dakiala	(dakik/n)

NOR-NORI-NORK

dostak/n	dosta	dostan	dostala	(didak/n)
doskuk/n	doskua	doskuan	doskuala	(diguk/n)
tzak/n	tza	tzan	tzala	(diok/n)

NOR-NORI *baldintza eta ahalera*

litzakik/	litzakida	litzakidan	litzakidala	(litzai(a/na)ke)
llakik/n	llakida	llakidan	llakidala	(daki(a/na)ke)

NOR-NORI-NORK *baldintza*

noskik/n	noskida	noskidan	noskidala	(ni(a/na)ke)
loskik/n	loskida	loskidan	loskidala	(li(a/na)ke)
goskik/n	goskida	goskidan	goskidala	(geni(a/na)ke)
noskixek/n	noskidasa	noskidasan	noskidasala	(nizki(a/na)ke)

3.1.2. -K/N Marka oposaketa amaiera indardunak (Nor - Nori)

-K/N markak ez dira galtzen -K gizon markan trukaketa bat ematen delarik "T" bat hartzen duelarik bere lekua:

-k + a + M > ta + M	(k → t)			
-n + a + M > na + M	(n → n)			
dxak	dxata	dxatan	dxatala	(zaik)
dxan	dxana	dxaana	dxanala	(zain)

3.1.3. -SK/N Marka oposaketa amaiera indardunak (Nor - Nori - Nork)

NOR-NORI-NORK ZEHARG. ERLAT. KONPLET.

dosk	dosta	dostan	dostala	(dik)
don	dona	donan	donala	(din)

9. Arratia eta beste esukalki batzutan ez da galtzen -K/N oposaketa menpeko esaldietan; dokela/donala, dakikala/dakinala, Erronkarieraz; nahi duka/duna?, badakika/badakina?

### 3.2. Beste hika adizki amaierak

#### 3.2.1. -5 amaieradunak

NOR	ZEHARG.	ERLAT.	KONPLET.	
as	asa	asen	asela	(haiz)
NOR-NORI				
dxatas	dxatasa	dxatasan	dxatasala	(zaizkik)
dxanas	dxanasa	dxanasan	dxanasela	(zaizkin)

#### 3.2.2. -A amaieradunak

NOR-NORI				
dxatasa	dxatasa	dxatasan	dxatasala	(zitzaizkian)
dxanasa	dxanasa	dxanasen	dxanasala	(zitizikinan)
NOR-NORI-NORK				
osta	osta	ostan	ostala	(zian)
ona	ona	onan	onala	(zinan)
ostia	ostia	ostien	ootiela	(ziaten)
onie	onia	onien	oniel	(zinaten)
NOR				
itza	itza	itzen	itzela	(hintzen)

#### 3.2.3. -T amaieradunak

NOR-NORK	ZEHARG. <sup>10</sup>	ERLAT.	KONPLET.	
aut	aua	aua	auala	(haut)
NOR-NORI-NORK				
dostat	dosta	dostan	dostala	(diat)
donat	dona	donan	donala	(dinat)

#### 3.2.4. -U amaieradunak

NOR-NORK				
au	aua	auen	auela	(hau)
au(gu)	aua	auen	aule	(haugu)
NOR-NORI-NORK				
dostau	dostaun	dostaun	dostaule	(diagu)
donau	donaun	donaun	donaule	(dinagu)

10. Otxandion, gazteek zehargaldera "n"z, erlatiboetan bezala egiten dute.

### 3.2.5. -E amaieradunak

#### NOR-NORK

aure	auria	aurien	auriela	(haute)
------	-------	--------	---------	---------

#### NOR-NORI-NORK

doste	dostia	dostien	dostiela	(diate)
done	donia	donien	doniela	(dinate)
lauskide	lauskidia	lauskidien	lauskidiela	(li(a/na)kete)

### 3.3. Hitanozko menpeko esaldi btzuk

#### 3.3.1. Indikatibozko esaldiak (zehargalderak)

- Esaik ser esan bidoa baina Esaik ser esan bidoan  
(*Esan ezak zer esan behar duan*) baina (*esan ezak zer esan behar duan*)
- Esango euke nun egoasa? baina Esango euke nun egonasen?  
(*Esango buke non egon baizen?*) ≠ (*Esango buke non egon naizen?*)
- Bakik ser inddua ≠ “Bakik ser indduan”  
(*Badakik zer egin duan*) ≠ (*Badakik zer egin duan*)
- Ik estostak esan segaittik emontza  
(*hit ez didak esan zergatik eman diodan*)
- Badxakitt ondo ser esaosta ≠ “Badxakitt ondo ser esaostan  
(*Bazekiat ondo zer esan diadan/didaan*) ≠ (*bazekiat ondo zer esan zidan*)
- Preguntaostat aber gustetan dxatasa/dxatasan  
(*Galdetu diat ez gustatzen zaizkian/zaizkidan*)
- Bakik ik ser daukoa? ≠ bakik ik ser daukoan  
(*Badakik hik zer daukaan*) ≠ (*badakik hik zer daukadan*)
- Etxakitt ser emon dostia  
(*Ez zekiat zer eman diaten*)
- Esaaike atzo nun egoitza?  
(*Esan dezakek atzo non egon hintzen?*)
- Esangostak ser emootza? ≠ Esangostak atzo seremootzan?  
(*Esango didak zer eman bion?*) ≠ (*Esango didak atzo zer eman zion?*)
- Atzo etxakitt ser iba” ≠ Atzo etxakitt ser iban  
(*Atzo ez zekiat zer egin huen*) ≠ (*Atzo ez zekiat zer egin zuen*)
- Esaostia ser emon bioskua? ≠ Esaostia seremon bioskun?  
(*Esan ziaten zer eman behar bigun?*) ≠ (*Esan ziaten zer eman behar zigun?*)
- Selan esaua ikusi dxuen iñok  
(*Nola ez handan ikusi joan egin nauk*)

#### 3.3.2. Subjuntibo erako esaldial

- kendik ori dxausi esdakida ≠ kendik ori dxausi esdakidan  
(*Ken ezak hori erori ez dakian*) ≠ (*Ken ezak hori erori ez dakidan*)

- Ekarri dxuet hau emon daitza ≠ “Ekarri dxuet hau emon daitzan”  
(*Ekarri diat hau eman diezaioan*) ≠ (*Ekarri diat hau eman diezaion*)
- Erosi ñua au pagau daista ≠ Erosi ñua au pagau daistan  
(*Erosi nian hau pagau hiezadan*) ≠ (*Erosi nian hau pagau ziaezadan*)
- Gure dxuet emon daiskua ≠ Gure dxuet emon daiskun  
(*nabi dinat eman diezagunan*) ≠ (*Nabi diat eman diezagun*)

### 3.3.3. Erelatibozko esaldiak

- Atzo emoostien kotxie apurtute dau  
(*Atzo eman ziaten kotxea apurtuta dago*)
- Ekarri duan kotxie txarto daabik  
(*Ekarri duan kotxea gaizki zebilak*)

### 3.4. Zenbait ondorio

Laburpen gisa, esan dezakegu, Otxandioko barietateko bereizgarriak nabarmenak hitanoan direla:

- “N” markaren galera
- “A” markaren agerpena
- “NA” emakume markaren galera

Otxandioko zehargaldera eta iraganean agertzen den “a” hori, “n” markaren lekua betetzen du aldebatetik, eta bestetik hika seksu marka neutro bezala jokatzeko du, -A/NA oposaketa oso ahula gertatzen baita: -A/(N)A, -N marka posizio erdikoian beti galtzen da, -K/N markak mantenduz

Beraz haxe geratatuko litzateke:

Orainaldianlehenaldian

doste + a = dostia	oste + a = ostia
done + a = donia	one + a = onia
as + a = asa	itza + a = itza

Lehenaldian “n” galera hori, Zuberoeraz eta lehen Erronkarieraz gertatzen zen bezala, aditz alokutiboa beste aditz indeterminatu guztietatik bereizteko modu bakarra da, baina denoraz eta analogiaz hika aditz normalera ere eragan da, beharrezkoa ez izanda.

### BIBLIOGRAFÍA

- PUJADA, Pedro, *Oletako Euskaladitza*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz 1977.
- YRIZAR, Pedro, *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*, tomo 11, Euskaltzaindia, Bilbo 1992.
- *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Gobierno de Navarra, Iruñea 1992.
- BURGUETE, X. eta GAMINDE, I., *Otxandioko euskaraz*, Otxandioko Udala, Otxandio 1991.
- LARRASKET, J., *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Paris 1939.

BONAPARTE, L. L., *Le verbe basque en tableaux, présentant les formes des dialectes guipuzkoan, biscaien, labourdin et suletin, comparées entre elles; ainsi que les principales variantes des autres dialectes, sousdialectes et variétés de l'euskara*, Euskaltzaindia.

BARRUTIA, Eneko, *Sintaxis, Gauountza sorta*, Labairu eskola 1991.

## LABURPENA

Artikulu honetan lehenengo zatian, Otxandio aldeko aditz alokutiboa eta utxandioko euskara barietate berdinekoak diren Ubide eta Oletakoe kin konparaketa bat erakutsi nahi da, berezitasun aspagarriena emakume seksu markaren gabezia eta “-n” iragan markaren gabeziak direlarik neurri desberdinetan hiru herriotan.

Halaber, berezitasun hauek kontuan hartuta, beste konparaketa labur bat egin nahi izan dut Zuberoera eta Erronkariera, Lehenengoa “-n” iragan marka gabekoa hitanoan eta honen eta emakume saksu marka gabekoa bigarrena.

Bestalde, bigarren atalean Otxandioko hitanozko menpeko esaldiek hika aditz laguntzaileetan duten eraginak ikusten dira.

## RESUMEN

En este artículo, que consta de dos parte, se quiere presentar en la primera las diferencias en el verbo alocutivo de la comarca de Otxandio con Ubidea y Oleta de la misma variedad dialectal que tiene la característica de no poseer marca sexual femenina y de no tener la “n” marca de tiempo pretérito, de manera irregular en cada pueblo.

Asimismo, tomando como referencia estas dos peculiaridades, se hace una breve comparación con el dialecto suletino y roncalés, carentes en el primero de la “-n” del tiempo pretérito y de ésta y de la característica sexual femenina el segundo.

En la segunda parte se ven, en el verbo *hika* o de tuteo cómo se estructuran algunas oraciones subordinadas y de que manera afectan al verbo auxiliar de tuteo.

## RÉSUMÉ

Cet article est divisé en deux parties. dans la première, on présente les différences dans le verbe allocutif de la région d'Otxandio avec Ubidea et Oleta de la même variété dialectique qui a la caractéristique de ne pas posséder de marque sexuelle féminine et de ne pas avoir de “n” marque du temps du prétérit, de façon irrégulière dans chaque village. De même, en prenant comme référentiel des deux particularités, on fait une brève comparaison avec le dialecte de la Soule et du Roncal où il manque le “n”, marque du temps prétérit et, de plus dans le second, on ne trouve pas non plus la caractéristique sexuelle féminine.

Enfin, dans la seconde partie, on étudie dans le verbe *hika* ou de tutoiement comment se structurent quelques phrases subordonnées et de quelle manière elles influent sur le verbe auxiliaire de tutoiement.

## SUMMARY

This paper comprises two parts. In the first part we aim to show the differences between the use of the allocutive verb in the area of Otxandio and in Ubidea and Oleta of the same dialectal variety. The allocutive verb shows the feature of absence of both the feminine sexual mark and the “n” mark of past tense in an irregular way in each village.

At the same time and taking these two peculiarities as a reference, a short comparison with the Suletin and Roncalés dialects is established, as the former does not have the past tense “n” mark and the latter lacks both this and the sexual feminine mark.

In the second part we can see not only how some subordinate sentences with the verb “hika” or of familiar addressing for the second person singular are structured, but also the way in which these subordinate sentences affect the auxiliary of familiar addressing.

